



2024KO UZTAILAREN 18KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko uztailaren hemezortzian, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarraín Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Eneritz Miranda Muxika, Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Josetxo Sese Eztala, Unbe Echaniz Perez, Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Egoitz Bergara Azpirotz, Maialen Amundarain Irizar, Maria Carolina Aguirre Mastrangelo eta Haritz Antoñanzas Urdangarin.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Aitana Amondarain Eskisabel Kontu-hartzaileak ere bileran parte hartu du.

Alkateak azaldu du IV. puntua, kreditu transferentzia bidezko 1. kreditu aldaketa espedientearen berri emateari dagokiona, bertan behera utzi behar dela ez delako kreditu aldaketa hori oraindik gauzatu eta honenbestez, dagokion dokumentazioa ez dagoelako prest.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2024ko ekainaren 27an egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

III.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 4 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIEN-TEAREN ONARPENA.-

Echaniz zinegotzia (EAJ-PNV) abstenitu egin da eta aretotik irten da.

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Kontu-hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Alkateak kreditu aldaketa proposamenaren xehetasunaren azalpena egin du.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio abstenitu egingo direla.

Hau guztia honela, gaia bozketan jarri da eta Osoko Bilkurak, aldeko 6 botorekin (EAJ-PNV), 6 abstentziorekin (EH Bildu) eta aurkako botorik gabe, honako akordio hauek hartu ditu:

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 4 zenbakidun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapituluko laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
II	Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	155.011,31 €
IV	Transferentzia arruntak	10.579,05 €
VI	Inbertsio errealak	60.000,00 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		225.590,36 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
VIII	Finantza aktiboak	225.590,36 €
GUZTIRA		225.590,36 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkeztzen ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.



IV. KIROLDEGIA HANDITZEKO 5.1 FASEKO 1., 2. ETA 3. AZPIFASEAK BURUTZEKO OBREN KONTRATUAREN 4. ALDAKETA ESPEDIENTEAREN ONARPENA.-

Echaniz zinegotzia (EAJ-PNV) gai honetan ere abstenitu egin da eta aretotik kanpo jarraitzen du.

Osoko Bilkurak, 2024-05-30ean egindako bilkuran, Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko 5.1 Faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko lanen egitasmoa, aldaketak sartuta, laugarren aldiz idazteko baimena ematea erabaki zuen; obrak Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. enpresari esleitu zitzaizkion 4.035.273,63 eurotan, gehi BEZ.

Proposatu diren aldaketak, kontratua arautzen duen administrazio-klausula berezien agirian jasota ez daudenak, kontratuaren lizitazioaren unean aurreikusi ezin zitezkeen gerora sortu diren inguruabarrek eragindakoak izan dira alde batetik, eta bestetik funtsezkoak ez diren aldaketek eragindakoak. Hain zuzen ere, obra-zuzendaritza zerbitzua daraman Jovino Martinez Sierrak burutu duen txostenaren bidez egindako eskaririk.

2024ko uztailaren 8an, kontratistari entzunaldia egiteko epea eman zitzaion.

Legearen arabera emandako epean, kontratistak ez du alegaziorik aurkeztu.

Espedientean gordeta dauden txosten teknikoekin bat etorriz, obra-kontratua aldatzeko nahitaezko betekizunak betetzen dira, hau da, SPKLko 203., 205. eta 242.4. artikuluetan ezarritakoak.

Kreditu aldaketa egitea beharrezkoa da, kontu-hartzailetzak adierazi duenaren arabera ez bait dago nahikoa kreditu obra hori egiteko udal aurrekontuko gastuen dagokion kontusailean. Beraz kreditu aldaketa bat egitea eskatzen du honek. Eta kontratu aldaketa honetarako beharrezkoa den saldoa egon dadin, kontzeptu hori barne duen kreditu aldaketa hori honen aurreko puntuan onartu du Osoko Bilkurak.

Era berean, Udal Idazkariak igorritako aldeko txostena ere badago.

Obra zuzendaritzak kontratuaren laugarren aldaketa hau proposatuz egin zuen txostenean, 2024ko maiatzaren 20koan hain zuzen ere, kontratau aldaketa honen estimatutako zenbatekoa 473.437,29 €-koa zela adierazi zuen. Aldatutako proiektua idatzi duenean aldiz, obra zuzendaritzak baieztatu du laugarren aldaketa honen zenbateko likidoa 491.814,77 eurokoa gehi BEZ dela.

Lehen aldaketa 366.694,50 eurokoa gehi BEZ izan zen, bigarren aldaketa 221.378,83 eurokoa gehi BEZ izan zen eta hirugarren aldaketak berriz, ez zuen obraren zenbatekoa aldatzea suposatu. Aldaketa guztien batura 1.079.888,10 eurokoa gehi BEZ dela kontuan hartuta, kontratuaren hasierako prezioaren (BEZ kontuan hartu gabe) %20 gainditzen da. Beraz, kontratistarentzat ez da bete beharrezkoa eta bere berariazko onarpena behar da. Onarpen hori eman du Lazkaoko Udalaren erregistro elektronikoa-ren bitartez 2024ko uztailaren 8an.

Proposatutako laugarren aldaketaren ondorioz, kontratuaren hasierako prezioa horrela aldatzen da: %12,19. Beraz, behin betiko bermea zenbateko horri doitu behar zaio, aldatutako prezioarekin dagokion proportzioa izan dezan. Hona hemen bermearen zenbatekoa: 24.590,74 euro (SPKL, 109.3. artikulua).

Aldaketarako espediente onesteko eskumena kontratazio-organoak du, hots, Osoko Bilkurak, SPKLko bigarren xedapen gehigarriko 1. idatz-zatian ezarri denari jarraituta.

Aurrekoa kontuan hartuta, Osoko Bilkurak, aldeko 6 botorekin (EAJ-PNV), 6 abstentziorekin (EH Bildu) eta aurkako botorik gabe, Alkatearen kalitatezko botoa baliatuz, honakoa erabakiak hartu ditu:

LEHENA. Lazkaoko Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko 5.1 faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko obren laugarren proiektu aldatua onartzea, udaleko zerbitzu teknikoek berrikusia, 491.814,77 euro gehi BEZ-ekoa.

BIGARRENA. Honako kontratu hau laugarren aldiz aldatzeko espediente onestea: "Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko 5.1 Faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak" burutzeko obrak egiteko dena, Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. enpresari adjudikatutakoa hasierako prezioa 4.035.273,63 euro gehi BEZa direlarik.

Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko proiektuaren laugarren aldatutako egitasmoari jarraituta egingo da; haur-igerilekuko ontziaren egitura berria konpontzean, beheko solairuko arkupea konpontzean, kiroldegia ontzi berriarekin lotzeko gunean materiala aldatzean eta uren tratamendu sistema aldatzean datza, eta kontratuaren laugarren aldaketa 491.814,77 eurokoa gehi BEZ izango da.

HIRUGARRENA. Aldaketa honek obraren epea 6 hilabete luzatzea dakar. Beraz, obra burutzeko epea 2025eko apirilaren 21ean amaituko da.

LAUGARRENA. 491.814,77 euro gehi BEZeko gastua xedatzea, indarreko udal-aurrekontuaren dagokien partidetan zorduntzeko.

BOSGARRENA. Ebazpen hau kontratistari jakinaraztea, eta aditzera ematea, batetik, hamabost egun baliodun duela, hauxe jaso eta biharamunetik hasita, behin betiko bermea 24.590,74 euroekin gehitzeko eta kontratuaren aldaketa gauzatzeko, eta, bestetik, zein errekurtso jar dezakeen.

SEIGARRENA. Aldaketa argitaratzea kontratatzailearen profilean, SPKLko 207. eta 63. artikuluetan agindu denari jarraituta

V.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN KONTRATU ESLEIPENA.-

Echaniz zinegotzia (EAJ-PNV) aretora bueltatu da.

Udal Osoko Bilkurak, 2024ko martxoaren 21ean hartutako akordio bidez, Lazkaoko Udalen etxez etxeko laguntza zerbitzua prozedura irekiz eta lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espediente onartu eta lehiaketarako deialdia egitea erabaki zuen.



Lizitazio deialdiaren iragarkia kontratatzailearen profilean jarri zen eta 2024ko apirilaren 9ko S: 70/2024 zenbakidun Europar Batasunaren Egunkari Ofizialaren gehigarrian argitaratu zen, 209009-2024 iragarkiaren argitalpen zenbakiarekin.

Eskaintzak aurkezteko epean ondorengo proposamen hauek aurkeztu dira:

- 1.- ZAINZEN, S.A.
- 2.- ARRETA ASISTENCIAL, S.L.
- 3.- EULEN SERVICIOS SOCIO SANITARIOS, S.A.
- 4.- PROTECCION GERIATRICA 2005, S.L.
- 5.- OHL SERVICIOS INGESAN, S.A.

Aurkeztutako bost proposamenak onartu egin dira.

Balio-judizio baten menpeko irizpideen balorazioa egiteko dokumentazioa jasotzen duten 2. artxibo elektronikoak 2024ko maiatzaren 20an, eguerdiko 12etan ireki ziren.

2. artxibo elektronikoek jasotzen duten dokumentazioaren azterketa egin ondoren honako puntuak eman zaizkie proposamenei:

ENPRESA	1.(*) (5 puntu)	2.(*) (3 puntu)	3.(*) (3 puntu)	4.(*) (5 puntu)	5.(*) (5 puntu)	6.(*) (2 puntu)	7.(*) (12 puntu)	PUNTUAK (35 puntu)
ZAINZEN, S.A.	5'00	3'00	3'00	5'00	5'00	2'00	10'20	33'20
ARRETA ASISTENCIAL, S.L.	5'00	3'00	3'00	5'00	5'00	2'00	10'80	33'80
EULEN SERVICIOS SOCIO, S.A.	5'00	3'00	3'00	5'00	5'00	2'00	11'40	34'40
PROTECCION GERIATRICA 2005, S.L.	5'00	3'00	3'00	5'00	5'00	2'00	10'80	33'80
OHL SERVICIOS INGESAN, S.A.	5'00	3'00	3'00	5'00	5'00	0'50	9'60	31'10

1. (*): Esku-hartze soziala zerbitzuetan hauskortasun eta kalteberatasun egoeran dauden eta mendekotasuna duten pertsonen arretan.
2. (*): Zerbitzuetan banakako arreta emateko programak.
3. (*): Zerbitzuetan laguntza soziala emateko programa psikosozialak.
4. (*): Larrialdi-egoeretan jarduteko protokoloak.
5. (*): Hauskortasun, kalteberatasun eta babesgabetasun egoerak detektatzeko eta koordinatzeko protokoloa.
6. (*): Erabiltzaileekiko eta/edo senideekiko gatazkak konpontzeko protokoloa.
7. (*): Zerbitzuen arteko antolaketa funtzionalari dagokionez proposatutako kudeaketa-eredua.

2024ko ekainaren 10ean, eguerdiko 12etan, proposamen ekonomikoa duten 3. artxibo elektronikoek jendaurreko irekiera egin zen. 3. artxibo elektronikoak ireki aurretik 2. artxibo elektronikoek balorazioaren berri eman zen.

Enpresek aurkeztutako proposamen ekonomikoak honako hauek izan dira:

ENPRESAK	Orduko prezioa 2024		Orduko prezioa 2025		Orduko prezioa 2026		Orduko prezioa 2027		GUZTIRA (65)
	A/L (*)	Punt. (5)	A/L (*)	Punt. (22)	A/L (*)	Punt. (22)	A/L (*)	Punt. (16)	
ZAINTZEN, S.A.	27,89 €	0'35	26,48 €	22'00	28,57 €	22'00	32,18 €	11'61	55'97
ARRETA ASISTENCIAL, S.L.	26,24 €	4'52	28,86 €	9'96	31,13 €	9'99	32,72 €	9'36	33'83
EULEN SERV. SOCIO., S.A.	27,08 €	2'40	29,66 €	5'92	32,51 €	3'52	34,17 €	3'30	15'13
PROTECCION GERIATRICA 2005, S.L.	26,35 €	4'24	27,44 €	17'14	30,60 €	12'48	33,21 €	7'31	41'18
OHL SERVICIOS INGESAN, S.A.	26,05 €	5'00	27,19 €	18'41	28,95 €	20'22	31,13 €	16'00	59'63

(*) A/L: Astelehenik larunbatera eskainitako orduaren prezioa.

(*) Igande eta jaiegunetan prezioa %30 handiagoa izango da.

(*) Prezio hauek ez dute BEZa barneratzen.

Eta ondorioz guztizko puntuazioa honela gelditu da:

ENPRESAK	Balio-judizio baten mendekoa	Automatikoki balioestekoa	GUZTIRA
OHL SERVICIOS INGESAN, S.A.	31'10	59'63	90'73
ZAINTZEN, S.A.	33'20	55'97	89'17
PROTECCION GERIATRICA 2005, S.L.	33'80	41'18	74'98
ARRETA ASISTENCIAL, S.L.	33'80	33'83	67'63
EULEN SERV. SOCIO., S.A.	34'40	15'13	49'53

OHL SERVICIOS INGESAN, S.A.-k , lehen sailkatu gisa, esleipena egiteko baldintza pleguan finkatzen den dokumentazioa eta behin betiko bermea jarrita du.

Honen aurrean, kontratazio mahaiak, OHL SERVICIOS INGESAN, S.A. enpresaren aldeko esleipen proposamena egin du.

Hau guztia honela, gaia bozketan jarri da eta Osoko Bilkurak, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

LEHENA.- Lazkaoko Udalaren etxez etxeko laguntza zerbitzuaren esleipena OHL SERVICIOS INGESAN, S.A.-k enpresaren alde egitea. Esleipenaren balio zenbatetsia, kontratuak iraungo duen bi urterako, esleipendunak eskainitako orduaren prezioen arabera eta baldintza plegu administratiboan urtean ematea aurreikusitako orduen zenbatekoa kontuan hartuta, MILIOI BAT HOGEITA HAMASEI MILA ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA BOST euro ETA HIRUROGEITA HIRU zentimokoa (1.036.765,63 €) da. Kopuru honi, dagokion BEZ erantsi beharko zaio, kasu bakoitzaren arabera % 4koa edo %10ekoa izanik.

BIGARRENA.- Esleipenaren akordioa, proposamena aurkeztu duten enpresa guztiei jakinaraztea eta kontratatzailearen profilean argitaratzea.

VI.- KIROL-ZERBITZUAK ESLEITZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIO DEIALDIA.-

LAZKAOKO
UDALA



Kirol zerbitzuak berriro ere lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espedientea pres-tatu da.

Kontratu honetan lizitazio prezioak zerbitzu ezberdinen orduaren prezioak izango dira. Prezio hauen gehienekoa eta gutxienekoa finkatzen ditu baldintza plegu ekonomiko-administratiboak. Zerbitzuaren urteko orduen arabera estimatutako prezioa, BEZ barne, 565.883,10 €-koa da.

Kontratua bi urterako izango da eta urte beteko bi luzapen egin ahal izango dira.

Gaia Ogasun eta Kirol Batzordeetan informatua izan da.

Hau horrela, eta 2017ko SPKLren 116. eta 117. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz, aho batez, honako hau erabaki da:

Lehena.- Kirol zerbitzuen kontratazio espedientea, eta kontratua arautuko duten administrazio-klausula berezien plegua eta baldintza teknikoen plegua onartzea.

Bigarrena.- Zerbitzua prozedura ireki bidez esleitzeko lizitazio deialdia egitea.

Hirugarrena.- Kontratu honek dakarren gastua baimentzea, indarrean dagoen aurrekontuko 227.14.341.00, 227.15.341.00, 227.16.341.00, 227.18.341.00, 227.13.342.02 y 227.14.342.02 aurrekontu-aplikazioen kontura.

Laugarrena.- Lizitazio publikoa Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean eta kontratatzailearen profilean iragartzea.

VII.- HIRIGINTZA ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN IDAZTEKO LAGUNTZA TEKNI-KOAREN ZERBITZUAREN LIZITAZIOA BERTAN BEHERA UZTEA.-

Udal teknikariak ohartu dira, Lazkaoko Arau Subsidiarioak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea egokitzeke Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren berria idazteko laguntza teknikoaren zerbitzuaren kontratazioari buruzko espedientearen baldintza teknikoen pleguan, IV. puntuari, hau da, erredakzio-taldearen osaera eta bete-beharrak zehazten diren puntuari, akats bat medio, atal bat ezabatu zela.

Atal horretan azaltzen den erredakzio-taldean, taldearen koordinatzaileaz eta aholkulari juridikoaz gain, ingurumen-teknikari bat ere egon beharko litzateke, eta bere erantzukizunak eta gutxieneko esperientzia ere zehaztu beharko lirateke.

Gai honi buruzko Idazkariaren txostenak dioenez, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 124. artikuluan arabera, baldintza teknikoen plegua onartua izan bada, errakuntza material, egitatezko errakuntza edo akats aritmetiko baten ondorioz soilik aldatu ahal izango da.

Kasu honetan, ikusirik akats hau ez dela errakuntza materiala, egitezkoa edo aritmetiko baten ondoriozkoa, eta akats gaindiezina dela iritzita, lizitazio deialdia bertan behera uztea proposatu du Hirigintza, etxebizitza eta obren batzordeak.

Gaia aztertu ondoren, Osoko Bilkurak, aho batez, Lazkaoko Arau Subsidiarioak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea egokitzeko Hiri Antolamenduko Plan Orokor berria idazteko laguntza teknikoaren zerbitzuaren lizitazioa bertan behera uztea erabaki du.

VIII.- HIRIGINTZA ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN AURRERAPENA IDAZTEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIO DEIALDIA.-

Lazkaoko Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorraren aurrerapena idazteko zerbitzua lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio prozedura hasi eta udal zerbitzu teknikoek baldintza pleguak gauzatu dituztelarik, bere onarpenera jarri dira hirugarren aldiz Udal Osoko Bilkura honen aurrean.

Lehiaketa honen datu esanguratsuenak honako hauek dira:

Kontratuaren epea 40 hilabetekoa da eta epe osorako lizitaziorako oinarria **BERREHUN ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI MILA HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMALAU** euro **ETA LAUROGEITA BEDERATZI** zentimo (278.354,89 €) gehi **BEZari** dagokion berrogeita hemezortzi mila laurehun eta berrogeita hamalau euro eta berrogeita hamairu zentimokoa (58.454,53 €) da.

Gaia aztertu ondoren eta Hirigintza, Etxebizitza eta Zerbitzuen batzordearen proposamenen aurrean, Osoko Bilkurak, aho batez, honako erabakiak hartu ditu:

LEHENA.- Lazkaoko Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorraren aurrerapena idazteko zerbitzua lehiaketa bidez esleitzeko Berariazko Klausula Administratiboen eta Preskripzio Teknikoen Pleguak onartzea.

BIGARRENA.- Lazkaoko Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorraren aurrerapena idazteko zerbitzua lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espedientea onartzea, 2024ko aurrekontuari dagokion 1 642.01.150.00 partidaren gain gastua baimendu eta lehiaketa ireki bidezko esleipen prozedura irekitzea xedatzea, iragarkia Kontratatzailearen Profilean eta baita Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean ere argitaratuz.

IX.- LAZKAOKO UDAL PLANGINTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN OSASUN ZENTROAREN EREMUKO ALDAKETA FORMULATZEA ETA DOKUMENTUA PRESTATZEN HASTEAK, ETA HERRITARREN PARTAIDETZARAKO PROGRAMA ONARTZEA.-

Hirigintza, Etxebizitza eta Zerbitzuen Batzordeak Osoko Bilkura honetan aurkeztu du Lazkaoko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa, osasun zentroaren eremuan, formulatzeko eta dokumentua prestatzen hasteko proposamena, baita herritarren partaidetzarako programa onartzeko proposamena ere.



Herritarren partaidetzako programak honela dio:

"Osasun Zentroaren eremuan, Lazkaoko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketarekin lotutako herritarren parte hartzeko Programa.

I. SARRERA

DOKUMENTU HONEN XEDEA

Indarrean dagoen Hirigintza legedian ezarritakoaren arabera (Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 108. artikulua eta urriaren 20ko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 5.e) artikulua), egitura plangintzako dokumentuak eta, ondorioz, haren aldaketak formulatzeko, Herritarren Partaidetzarako Programa egin behar da, herritarrek eta elkarteek horiek egiteko prozesuan parte hartzeko eskubidea izateko helburuak, estrategiak eta mekanismoak zehazteko. Programa horrek, besteak beste, honako partaidetza mekanismo hauek finka ditzake:

- Bilkura irekiak, edukiak azaltzeko, batez ere udalerria eraikitzeko erabaki estrategikoak eta espedienteak izapidetzean aurkeztutako aukera posibleak.
- Udal herri kontsulta egiteko aukera, toki araubideari buruzko oinarritzko legerian ezarritako erregulazioaren arabera, herritarrek dokumentuan jasotako alderdiren bati buruz eztabaida larria izanez gero.
- Dibulgazio materiala, Hirigintza tresnetarako lege eskatzen diren dokumentuekin batera prestatu beharko dena, zabalkundea eta ulermena errazteko. Egitur -plangintzako dokumentu bat aldatu nahi denez, zehazki, Arau Subsidiarioen Aldaketa Osasun Zentroaren Eremuan, dagokion Herritarren Partaidetzarako Programarekin osatu behar da.

II. INDARREAN DAGOEN LEGE ESPARRUA

Herritarrek parte hartzeko programa hau lege esparruan egiten da eta, besteak beste, honako xedapen hauek osatzen dute:

— Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen Testu Bateginaren 5. artikulua (7/2015 Legegintzako Errege Dekretua): Herritar guztiek dute eskubidea (...) benetan parte hartzeko lurralde antolamenduko edo hirigintza antolamendu eta exekuzioko edozein tresna egiteko eta onartzeko prozeduretan, bai eta ingurumen ebaluazioan ere, alegazioak, oharrak, proposamenak, erreklamazioak eta kexak eginez, eta administrazioaren erantzun arrazoitua jasotzeko, administrazio horren araubide juridikoa eta dagokion prozedura arautzen dituen legeriaren arabera.

— Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 8.1 artikulua (2/2006 Legea): Hirigintza antolamendua formulatu, izapidetu, onartu eta betearaziko da, pertsona fisiko edo juridikoen partaidetza erraztuz, forma guztietan, lege honetan berariaz aurreikusitakoak bermatuz.

— Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 84.4 artikulua (2/2006 Legea): Dagokion Hirigintza plana edo tresna egiteko erabakian edo, hala badagokio, izapidetzeko eskumena duen administrazioaren aurrean aurkeztutakoa onartzeko izapidetan, administrazio koordinazioa eta hura egiteko, izapidetzeko eta onartzeko prozesuan herritarrek parte hartzeko programa sustatzeko beharrezkoak diren neurriak eta jarduketak zehaztuko dira.

— Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 108. artikulua (2/2006 Legea): Egiturazko antolamenduko edozein plangintza-figura formulatzen, aldatzen edo berrikusten hasteko udal-akordioarekin batera, herritarrek parte hartzeko programa bat aurkeztu beharko da. Programa horretan, udalerraren ezaugarrien arabera, helburu, estrategia eta mekanismo nahikoak ezarriko dira, herritarrek eta elkarteek plana egiteko prozesuan parte hartzeko eskubidea izan dezaten. Mekanismo horien artean egongo dira:

a) Jendeari irekitako saioak, aurrerapenaren edukia azaltzeko, batez ere hiria eraikitzeko erabaki estrategikoak eta espedientea izapidetzean aurkeztutako aukera posibleak azaltzeko.

b) Udaleko herri-kontsulta egiteko aukera, toki-araubideari buruzko oinarritzko legerian ezarritako erregulazioaren arabera, herritarrek planean jasotako alderdiren bati buruz eztabaida larria izanez gero.

c) Dibulgazio materiala, Hirigintza tresnetarako legez eskatutako dokumentuekin batera prestatu beharko dena, zabalkundea eta ulermena errazteko.

— Lurralde antolamenduko planak eta Hirigintza antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 26.2 artikulua: Plan orokorra formulatzen hasteko akordioarekin batera herritarrek parte hartzeko programa bat aurkeztu beharko da, dekretu honetan aurreikusitako baldintzetan.

— Lurralde antolamenduko planak eta Hirigintza antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 3. artikulua:

1.- Plan orokorra egiten hasteko erabakiarekin batera herritarrek parte hartzeko programa bat aurkeztu beharko da, dekretu honetan aurreikusitako baldintzetan.

2.- Herritarrek parte hartzeko programa hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo dagokion lurralde historikoko aldizkarian argitaratuko da, labur labur, administrazio publiko sustatzailearen arabera; informazioaren teknologia berrien bidez zabalduko da eta, gutxienez, honako partaidetza mekanismo hauek izango ditu:

a) Partaidetza gida bat, herritarren partaidetza prozesuaren jarraibideak eta edukiak eta xehetasnak deskribatuko dituen eta, gainera, partaidetza prozesuaren abiapuntu izango diren edukien laburpena jasoko duena.

b) Jendeari irekitako saioak, ekimenaren edukia eta espedientea izapidetzean aurkeztutako aukera posibleak azaltzeko.



c) Legez eskatutako dokumentuekin batera prestatu beharko den dibulgazio materiala, zabalkundea eta ulermena errazteko.

III. ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETAREN AURREKARIAK

Indarrean dauden Lazkaoko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioek (Testu Bategina), 2008-12-23an behin betiko onartutakoak (2009-02-19ko GAO, 33. zk.), egin nahi den aldaketaren eremuaren zati bat barne hartzen dute ERDIGUNEan, "h.10 "kalifikazioa duen hiri lurzoru finkatu gisa sailkatua. Komunitatearen ekipamendurako lurzatia". Eragindako gainerako lurzoruak urbanizaezin gisa sailkatutako lurzoruan daude, "D.20 – Paisaia Babes Bereziko Lurzoru Urbanizaezin" gisa kalifikatuta.

Lazkaoko biztanleriak gora egin du azken urteotan, baita Osasun Zentroak zerbitzua ematen dien udalerrri mugakideetan ere eta, horrekin batera, herritarrek eskatzen dituzten osasun zerbitzu berriak ezarri dira. Horren ondorioz, egungo instalazioak ez dira nahikoak.

Honi dagokionez, eta egiazta daitekeenez, duela urte batzuetatik bi ekipa modular instalatu behar izan dira zentroaren kanpoaldean, sortzen ari diren beharrei erantzuteko.

Aipatutako arazoa konpontzeko, egungo instalazioak eraistea eta beharrei erantzungo dien eraikin berri bat eraikitzea planteatzen da. Eraikin horrek sotoko solairua eta hiru solairu izango ditu, 845,00 m²ko okupazioa oinplanoan eta 2.535,00 m²ko sabai eraikigarria sestra gainean.

Horretarako, egungo lurzatia okupatzeaz gain, eremua Osasun Zentroaren iparraldeko mugan dauden lursail mugakide batzuetara zabaltzeko behar da. Lursail horiek gaur egungo kokalekutik kanpo daude, eta indarrean dagoen udal plangintzak urbanizaezin gisa sailkatzen dituen lurzoruetan daude. Hori dela eta, beharrezkoa da Lazkaoko egiturazko plangintzaren indarreko dokumentua aldatzea.

IV. HERRITARREN PARTE HARTZEKO PROGRAMAREN HELBURUAK

Honako helburu hauek lortu nahi dira:

1. Norberaren parte hartzearen inguruko helburu espezifikoak betetzen direla bermatzea. Herritarren Partaidetzarako Programaren helburu nagusia da, herritarren parte hartzearen bidez, udalerrria ulertzeko eta bizitzeko modu askotarikoa jasotzea, eta ikuspegi aniztasun hori Arau Subsidiarioen Aldaketaren diseinuan islatu ahal izatea. Ildo horretan, Herritarren Partaidetzarako Programak honako hauek bermatu behar ditu:

- a) Parte hartzeko eskubidearen eta eskubide hori egikaritzeko moduaren berri ematea.
- b) Parte hartzeko irekitako prozeduraren faseetan oharrak eta iruzkinak egiteko eskubidea aitortzea.

c) Parte hartzea fase ireki horiei ere aurrea hartzea, aldaketa espedientea hasten den lehen uneetatik herritarren esku hartzea bermatuz, hau da, hasierako onespeneren aurretik.

d) Parte hartzea ahalbidetzea, informazioa emateko eta proposamenak egiteko bide eskuragarrien bidez.

e) Arau Subsidiarioak Aldatzeko dokumentua egiteko eta izapidetzeko prozesu osoan informazioa ahalbidetzea.

V. HERRITARRAK PARTE HARTZEKO PROGRAMAREN EDUKIA

Herritarren Partaidetzarako Plan honek zenbait fase aurreikusten ditu. Jarraian zehazten dira fase horiek, eta udal teknikariek aintzakotzat hartuko dituzte.

1) 1. fasea: Herritarrek parte hartzeko mekanismoak, Arau Subsidiarioen Aldaketari hasierako onspena eman aurretik.

— Aldaketa egiteko erabakia Herritarren Partaidetzarako Programa hau onartuko du, eta Hirigintza plangintzako tresna egin, izapidetu eta onartzeko prozesuan aplikatuko da.

— Herritarren eta elkarten esku jarriko da dokumentazio idatzia eta grafikoa, aldagaketa proposamenari buruzko iritzia eman dezaten. Dibulgaziozko material hori Arau Subsidiarioen Aldaketaren laburpen exekutiboa izango da.

— Jendaurreko azalpen bilera bat egingo da, jendeari irekia, udal teknikarien eta erredakzio taldearen eskutik, horretarako izendatzen den tokian eta egunean. Bileran aldagaketa norainokoa eta edukia, dokumentua kontsultatzeko moduak eta teknikariek nahi duten partikularrekin biltzeko aurretiko hitzordua eskatzeko aukera azalduko dira. Saioaren amaieran galdera sorta ireki bat ezarriko da.

— Txosten batean jasoko dira bilkura publikoaren ondorioz izandako iritziak eta ondorioak, eta Aldaketan jasoko beharko da.

2) 2. fasea: Herritarrek parte hartzeko mekanismoak, aldaketa hasiera onarpena jaso ondoren.

— Arau Subsidiarioen aldagaketa hasierako onspena eman ondoren, aldaketa hori jendaurrean jarriko da hilabeteko epean, azken argitalpenetik hasita, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Lurralde Historikoan zabalkunde handiena duen egunkarian argitaratuta, betiere 2/2006 Legearen 90.5 artikulua araberak. Era berean, erakusketaren berri emango da ohiko udal kanaletan.

— Lazkaoko Udalak dagozkion alegazioak jasoko ditu.

— Hasierako onarpenaren ondoren jendaurrean jartzearen ondorioz jasotako alegazioei buruzko txostenak egingo dira. Txosten horiek, hala badagokio, Arau Subsidiarioen Aldaketaren Testu Bateginean jaso beharko dira.



3. fasearen barruan sartzen da dokumentua behin behinean onartzea eta, ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari bidaltzea, nahitaezko txostena egin dezan (2/2006 Legearen 91.2 artikulua).

Txostena jaso ondoren, Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaliko zaio dokumentua, behin betiko onar dezan.

Honek, behin betiko berrespena ematen duenean, erabakia eta hirigintza arauak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko ditu."

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio xehetasun gutxi ikusten diotela parte-hartze programari. Horren faltan ezin dutela baiezkorik eman eta abstenitu egingo direla.

Programan zerrendatzen diren aurrekarien arabera, Udalbatzak, aldeko 7 botorekin (EAJ-PNV), 6 abstentziorekin (EH Bildu) eta kontrako botorik gabe, honako hau erabaki du:

1. Osasun Zentroaren eremuan, Lazkaoko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen al-daketa formulatzea eta dokumentua prestatzen hastea.

2. Erabaki honekin batera doan herritarren partaidetzarako programa onartzea. La-burbilduta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren webgunean argitaratuko da.

X. SEKTORE PUBLIKOAREN ZERBITZUKO LANGILEEN ORDAINSARI IGOERA GEHIGARRIA 2024. URTERAKO.-

Ekainaren 27an 4/2024 Errege Lege-Dekretua argitaratu zen EAOn, besteak beste, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien arloko neurriak onartzen dituen.

Zehazki, II. atalean, 6. artikuluan, Errege Lege-Dekretu horrek honako hau xeda-tzen du:

II. ATALA. Sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien arloko neurriak (...).

"6. Artikulua. Sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsari-igoera gehigarria, 2024. urterako."

- 1.- 2024an, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsariek ehuneko 2ko gehi-eko igoera orokorra izan ahal izango dute 2023ko abenduaren 31n indarrean zeudene-kiko; azken horien barruan, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko aben-duaren 23ko 31/2022 Legearen 19.Bos.2 artikuluan aurreikusitakotik eratorritako igo-erak sartzen dira, alderaketaren bi aldietarako homogeneousotasunaren arabera, bai lan-gileei dagokienez, bai haien antzinasunari dagokionez. Ordainsarien igoera horrek 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.

2.- Era berean, 2024ko urtarilaren 1etik aurrera, hala badagokio, ehuneko 0,5eko lansari-igoera gehigarri eta finkagarria aplikatuko zaie 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden lansariei, baldin eta 2022, 2023 eta 2024ko KPIaren aldaketaren baturak 2022, 2023 eta 2024ko lansari-igoera finko metatua gainditzen badu.

Ondorio horietarako, Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) 2024ko IPCAren datuak argitaratu ondoren, igoera hori aplikatzea onartuko da Ministro Kontseiluaren erabaki baten bidez, zeina BOEn argitaratuko baita (...)"

EUDELeK, 2024ko ekainaren 27an, zirkular bat atera zuen horren berri emanez eta sektore publikoko langileen ordainsariak % 2an igotzeko gomendioa eginez.

Hau honela izanik eta Ogasun Batzorde informatiboaren proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aho batez, Lazkaoko Udalen langileen ordainsariei ehuneko 2ko gehikuntza-gehigarria aplikatzea erabaki du.

XI. GALDERAK ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

XII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du arratsaldeko zazpiak eta hamar direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.



The image shows a handwritten signature in blue ink over a circular official stamp. The stamp contains the coat of arms of Lazkaoko Udala and the text "LAZKAOKO UDALA" below it.